

Objektibotasuna, objektutze epistemikoa, eta zapalkuntza¹

SALLY HASLANGER

1. Objektibotasun motak

‘Objektibo’ hitza era askotan erabiltzen denez², garrantzizkoa da gutxienik hiru esanahi bereiztea: *errealitate* objektiboa, *diskurtso* objektiboa eta *ezagutza* objektiboa. Hiru esapide horien erabilera estandarra (nahiz gatazkatsua) egungo eztabaidetan honakoa da:

Errealitate objektiboa = ‘Hor kanpoan’ den hori, edo gertatzen dena, gugandik independente; gauzak nola diren, nola pentsatzen edo esaten ote ditugun axola gabe.

Diskurtso objektiboa = Gertakariak adierazgarri egiten dizkiguten diskurtsoak.

Ezagutza objektiboa = Arrazionala den edonoren eskurako terminoetan justifikatzen den ezagutza.

Errealitate objektiboan aurkitzen ez diren gertakariak adierazteko aukera ematen du hainbat diskurtsok. Esaterako, nolakotasun bigarrenak (koloreak, kasu) *errealitate* objektibotik kanpo kokatu ohi dira, koloreak ‘gure mendeko’ propietateak omen direlako. Eta hala ere, stop-seinalea gorria den, ala urdina, bada izan *gertakari* objektiboa, horri buruzko diskurtso objektiboa badugulako. Koloreen diskurtsoarekin kontrastean, ordea, izaera komikoari buruzko diskurtsoa saiatu ere ez da egiten komikotasuna objektiboa denik adierazten. Alegia, koloreak ez dira objektiboki errealak, kolore-diskurtsoa objektiboa den arren; aldiz, izaera komikoa ez da, ez objektiboki errealak, ez diskurtso-objektiboa.

Diskurtso objektibotik bereizi daiteke, beraz, ezagutza objektiboa. Izan ere, ezagutza objektiboak ez du soilik eskatzen gertakariak adierazi ahal izatea, baizik eta besteak beste, gertakariak zuzen jasotzea. Azken batez, zerbait *ezagutzeaz* ari gara. Gakoa da, hala ere, ezagutza oro ere ez dela ezagutza objektiboa. Gainerako ezagutza moduekin alderatuta, objektiboa izan beharrak ezagutza objektiboari estandar altuago (edo ezberdin) bat inposatzen baitio. Esaterako, norbait gai izan bada Jainkoa ezagutzeko esperientzia mistiko edo errebelazio bidez, kasu horretan ezagutza mota horri ez genioke objektibo deituko justifikazioa ez dagoelako ikertzaile arrazional guztien eskura. Alabaina, adibidearekin jarraituaz, errealitatean Jainkorik balego, eman genezake Jainko hori errealak litzatekeela, objektiboki errealak beraz. Horregatik, ezagutza objektiboa ezin da besterik gabe ulertu errealitate objektiboaren ezagutza gisa.

Bereizketa horiek guztiak ez ditut egiten nik neuk besarkatzen ditudalako, baizik eta agerian jartzeko nola funtzionatu dezakeen politikoki neutralizat hartzen dugun bereizketa multzo batek (sakoneko hainbat aierurekin batera *-background assumptions-*) menderakuntza- edo azpiratze-sistemak eusteko. Saio honen asmoa ez da objektibotasuna (bere forma anitzetan) nola ulertu ezartzea. Baizik eta aztertzea objektibotasun mota horiek nola gorpuzten edo txertatzen diren gure praktika sozialen garapenean.

¹ Eskerrak Abby Jaques, Rae Langton eta Stephen Yablo-ri izandako elkarrizketa mamitsuengatik, eta Ian James Kidd, José Medina eta Gaile Pohlhaus Jr-ri testu honen zirriborroari egindako iruzkin bikainengatik.

² Auzi hauen inguruko ulerkerak nabarmen hobetu da Stephen Yabloekin batera objektibotasunari buruz emandako graduiko ikasgaia (2015 udazkena) irakasteari esker. Eskerrak berari eta ikastaroan parte hartu zuten ikasleei euren ekarpenengatik.

Bereziki *objektutze epistemiko* gisa izendatu ditzakegun kasuak interesatzen zaizkit. Gizatalde bati hainbat ahultasun epistemiko (benetakoak edo irudikatuak) leporatzen zaizkio eta, gainera, esaten da taldearen naturatik eratortzen zaizkiela ahultasun horiek, esentzialak omen zaizkielakoan. Objektutze epistemikoa objektutze-sorta zabalagotan agertzen da maiz, azpiratu estatusak berezko edo natural egiten dituzten objektutze-mota gehiago ere badirelako. Garrantzizkoa da, horrekin batera, azpiratuen edo baztertuen ahotsa nola estaltzen den identifikatzea, erresistentzia mututu edo susmopean jartzeko. Sinesgarritasun ebaste hori testigantza-injustizia forma nagusia da. Objektutze epistemikoaren injustizia ordea ez da soilik testigantzazkoa. Objektibotasunaren, edo errealitate objektiboaren, zenbait eredu oinarritu egiten duten *status quo* arrazoiketa eta zapalkuntza egoeretan aski orokorra da arrazoiketa modu hori azpiratze praktikak justifikatzeko erabiltzea. Status quo arrazoiketa biak batera delako, injustizia epistemikoa –bazterketa epistemikoa iraunkorra bihurtzen duen faktore bat den heinean- eta baita zapalkuntzarako gailu epistemikoa ere.

Aurreiritziek injustizia epistemikoak eragiteaz gain, Miranda Frickerrek modu grafikoan erakutsi du injustizia epistemikoak buklearen parte direla, aldi berean direlako, injustiziatik sortuak eta injustizia sortzaile:

“Systematic testimonial injustices, then, are produced not by prejudice simpliciter, but specifically by those prejudices that ‘track’ the subject through different dimensions of social activity.... When such a [tracker] prejudice generates a testimonial injustice, that injustice is systematically connected with other kinds of actual or potential injustice.” (Fricker 2007, 27)

Ulertzen dudan moduan, objektutze epistemikoa buklearen osagai garrantzitsua izan ohi da. Buklea horrela garatzen da: norbanakoak azpiratuak dira eta baliabide epistemikoak ukatzen zaizkie; horrek kalte epistemikoak eragiten dizkie, zenbaitetan gabezia epistemiko forma hartzen dutenak. Orduan, talde barneko gabezia epistemiko kontingente horiek objektibatu egiten dira, alegia, normaltzat edo naturaltzat hartzen dira eta, beraz, ez da esku-hartze beharrik ikusten edo baimentzen. Horrek, aldi berean, arrazoizko egiten du gizatalde horri baliabide eta sinesgarritasun epistemikoak ukatzea, min epistemikoa luzatuz eta -ezagutza ongia bikoitza denez, instrumentala zein berezkoa- injustizia eraginez –injustizia modu zabalean ulertuta-.

2. Normala, naturala eta ona³

Has gaitzen ideia honekin: errealitate objektiboak egitura du. Ekai moten arteko banaketak objektiboak dira, eta munduaren jokabidea banaketa horiek eragiten dute. Banaketa horiek ez ditugu guk sortzen. Esate baterako, hidrogenoa eta oxigenoaren arteko bereizketa objektiboa da, munduaren egitura kausalari dagokiolako. Munduaren jokabidea ezagutu nahi badugu, hidrogenoaren eta oxigenoaren arteko alde horrek munta badu, ezagutza kimikoa xerkatu beharko dugulako, besteak beste.

Pentsa dezakegunez, hidrogeno eta oxigenoaren arteko aldea ez da alde kontingentea edo ausazkoa. Ez da soilik hidrogeno atomoek zortzi protoi izan zitzaketela (zortzi protoi dituen elementuari ‘hidrogeno’ izena jarri izan geniezaiokeen arren). Elementu bakoitzak bere natura du, tasun bat berea, eta hura da gainerako ekaiekin dituen interakzioak nolakoak diren agintzen duena, eta ekai bakoitzaren jokabide erregularrak ezartzen dituena. Esaterako, baten eta bestearen konposizio

³ Atal honetako hainbat auzi, batez ere ezaugarri generikoekin lotutakoak, aurretik landu ditut, non Haslanger (2012, 1 & 17 kap) eta Haslanger (2014a).

kimikoengatik disolbatzen da oxigenoa uretan, baina ez oliotan. Suposizio horrek uste arrunt hau gure egitera garamatza:

Gure-egindako-uste Esentzialista [Essentialist Assumption]: Erregularitasun sendoak ez dira ausazkoak, ekaien naturen araberakoak baizik⁴.

Nola erabaki, ordea, zeintzuk diren erregularitasun 'sendoak'? Azken batez, oxigenoa ere ez da disolbatzen ur izoztuan. Eta ur kopuru jakin batean zenbat oxigeno disolbatu daitekeen ere tenperaturaren, presioaren eta abarren araberakoa da. Horregatik, maiz, ekaien naturak ezagutzeko baldintza 'normaletan' agertzen diren erregularitasunak bilatzen ditugu. 'Normalean', ura likidoa da eta normalean oxigenoa ur likidoan disolbatzen da.

Arazoa da, ordea, 'normala' izatearen ideiak badituela bi erabilera bereizi garrantzitsu:

- 1) 'Normala izatea' kontzeptu estatistikoa denean: estatistikoki probablea dena da normala. (Normalean, Estatu Batuetako bihitegiak gorriak dira. Normalean, azaroa hilabete euritsua da.)
- 2) 'Normala izatea' kontzeptu normatiboa denean: normala da gauzek nola 'izan beharko luketen', edo 'aldeko' egoeretan nola diren. (Normalean, bi urte bete aurretik hasten dira haurrak hizkuntza erabiltzen. Normalean, hurkoaren jabetza errespetatzen dugu.)

Zerbaiten "natura" nozioak (edo esentziak, edo tasunak) "normalaren" zentzu estatistikoa eta normatiboa batzen ditu: ekaiek baldintza normaletan bere natura erakusten dute (estatistikoki); eta naturazkoa den hori da egokia eta zuzena (normatiboki). Azken batez, *X*ren naturagatik gertatu ohi dena (estatistikoki), *X*rentzat egokia da (normatiboki).⁵

Naturala den hori batzuetan ez gertatzea, egoera batzuetan saihetsezina ez izatea, ere permititzen du horrela pentsatzen duenak. Ezbeharrak ere gertatzen direlako. Jardun naturalak ere hankaz gora jar daitezkeelako. Zenbait egoeratan, 'itxuragabekeriak' dituzten zerek ez dute euren natura erabat adierazten. Pentsatu ohi dugu ernaldi normal batetik jaioberri normal bat erdituko dela. Baina ez ernaldi guztiak ez jaioberri guztiak dira normalak. Zentzu horretan, zerbait ohiz kanpokoa dela esaten denean ez da soilik baieztapen estatistiko bat egiten, desbideratzea zenbateraino den arraroa erakusteko. Normatiboa ere izan daiteke. Pentsa, esaterako, ur horniduran berun kopuru altuak

⁴ Ron Mallon-ek (2007) 'esentzialismoa' kritikatu berri du, eraikuntza sozialaren kritiken jomuga atzemateko aldi berean indartsuegia eta ahulegia omen delako. Nonbait, klase natural izateko, esentzia baino, nahikoa da propietate sorten arteko homeostasi kausal kontingentea (Boyd 1999; Mallon 2003, 2007). Jakina, norberak esentzia ulertzeko duen moduaren arabera neurtzen da argudio hori. Metafisika garaikidean arruntak dira hainbat baieztapen 'esentzialista'. Esaterako, esentziak atzemangarri direla, printzipioz, ekai (mota) bakoitza izateko beharrezkoak eta nahikoak diren baldintzak atzemandak; ekaien propietate guztiak ez direla nahitaez haien esentziaren parte; zera baten existentziak haren esentziaren baldintzak asetzea eskatzen duela (ez litzateke existituko propietate esentzial aipagarri horiek izango ez balitu); eta, klase bateko kide orok esentzia bera duela (Fine 1994, 1995). Dena dela, 'esentzia' zenbaitetan 'naturaren' sinonimotzat hartzen da, *zera (mota) baten natura*, esaten denean adibidez. Nik neuk 'natura' terminoa nahiago dut 'esentzia' baino, malguagoa delako eta 'esentziak' uzten ez dituen moldaera zenbait baimentzen dituelako. Debate horietan guztietan duen pisu historikoagatik, ordea, 'esentzialismoa' mantendu dut, zerrendatu berri ditudan tesi horiekin ezkondu gabe horregatik. Izan ere, 'naturalismoa' ez du ordezko egokia, konnotazio zeharo ezberdinak dituelako.

⁵ Hemen bi baieztapen bereizi daitezke. Batzuetan 'klase' [*kind*] terminoa sustantzia-klase moduan erabiltzen dugu, hala nola *zaldi* edo *gizaki*, eta bestetan kalitate-klase moduan, hala nola *likido* edo *bizidun*. Klase-sozialak nahasgarriak dira, sustantzia-klase moduan funtzionatzen dutelako nolabait, baina haien kideentzat esentzialak izan gabe. Horregatik kalitate-klaseen antzekoagoak dira, hala nola *ama*, *irakasle*. Norbanakoon natura aztertzerakoan (neurea esaterako), auzian dagoena sustantzia-klasea da (*gizaki*). Baina ama eta irakasle ere banaiz, eta ama eta irakasle izatea zerbait izatea baden neurrian, horiek ere badituzte tasunak. Izate horiek dira, edo natura-kualitatiboak, edo propietate/harreman errelebanteen naturak. Baina ez dira nire naturaren parte. Gerta liteke ni ez izatea egokia ez ama, ez irakasle izateko. Horrek guztiak nahasmen handia sortzen du, baina ezin dut gehiago garatu hemen.

aurkitzen badira eta, horren ondorioz, jaioberri gehienek eragozpen kognitiboak badituzte. Kasu horretan, ez genuke ondorioztatuko eragozpen horiek normalak direnik. Ondorioz, ‘normala’ denaren zentzu estatistiko eta normatiboaren arteko lotura beste onarpen honetan eusten da:

Gure-egindako-uste Normatiboa: Ekaiek euren naturak adierazi beharko lituzkete, eta hala egin ohi dute egoera edo baldintza normaletan/aldekoetan. Horregatik, ohiz kanpoko edo kontrako egoerak ez dira onak eta ekidin edo aldatu behar dira.

Ohartu, hala ere, normala-dena eta esentziala-dena epistemikoki batzea zalantzakorra dela. *X*ren esentzia ezagutzen badugu, *X*ri dagozkion baldintza normalak/aldekoak zeintzuk diren ezarri ditzakegu, horiek direlako hain zuzen *X*k bere esentzia ezagutzera emateko baldintzak, horietan jokatzeko berari naturala zaion eran. Baina *X*ren esentzia ezagutzen ez denean, ez da batere nabaria zeintzuk izan litezkeen *X*ri dagozkion baldintza normalak/aldekoak. Eta orduan, normala denaren zentzu estatistikora itzultzea tentagarria da, pentsatuaz maiztasuna dela *X*ren naturaren ebidentziarik hoberena.

Arazoa da, ordea, klase batentzat estatistikoki normala denak ez diola beti klase horren naturari erantzuten, estatistikoki normala zaion jokabide hori sozialki manipulatu edo kalterako zaizkion baldintzek eragindakoa izan daitekeelako. Esaterako, emakumeek hezkuntza arautura sarbidea debekatuta duten egoeretan, ez da harrizkeoa horregatik alor publikoan intelektualki aritzeko behar bezalako trebakuntzarik ez izatea: haien hiztegia zein kontzeptu-zerrenda zarpaila izan liteke, eta nabaritzat/egokitzen hartzen ez diren erreferentziak erabili ditzakete arrazoiketetan. Orduan, izaera kimatu hori emakume ‘tasunaren’ ondorio dela interpretatu da, baldintza sozial kontingenteen ondorio gisa interpretatu beharrean; eta ondorioz, emakumeek hezkuntza arautura sarbidea emateko argudioek ere ez dute indar nahikorik topatuko, hain zuzen emakumeek ez dutelako *de facto* erakusten haiek formalki heztearen ahalegina emankorra dela erakusteko adina gaitasun kognitiborik.

Gainera, klase baten naturari erantzuten dion oro (izan beharko lukeena) ez da beti ona, eta ez du zertan babesik merezi, zenbaitetan naturala den hori hobetzeko aukeran gaudelako. Zenbait teoria filosofikotan, adibidez, natura hobetzea da hain zuzen gizartearen (kooperazioaren, hezkuntzaren, osasungintzaren, etab.) azken xedea. Hala, *Gure-egindako-uste Esentzialista* eta *Normatiboa* biak daude oker. Laburtuz, ‘normala’ dena ez da beti naturala, eta naturala dena ez da beti hobea. Ondorioa ere garrantzitsua da: ohiz kanpoko edo ez-naturala dena ez da beti txarra.

3. Status Quo arrazoiketa

Bai *Gure-egindako-uste Esentzialista* bai *Normatiboa*, *status quo*-a berrindartzeko baliabide bikainak eskaintzen dituzte. Demagun ez gaudela ekaien tasunak ezagutzeko moduan. Baina badutela garrantzia (kimikan zein politikan). Jendea euren naturen aurkakoak diren moldeetan jokatzera behartzen badugu, arazo bat sortzen dugu. ‘Gertakariei lotzeagatik’, eman dezagun orain F-ak oro har hartuta G direla; kasu honetan, emakumeak zaintzaileak direla ohartu gara. Are gehiago, F-ak G izan ez daitezke aldatu ditugunean porrot egin dugula ere ohartu gara. Kasura itzulita, lehia biziko egoeretan emakumeak zorigaitzekoak dira eta ez arrakastatsuak. Orduan, tentatzen du zera pentsatzeak, euren naturagatik direla F-ak G, emakumeak zaintzaile: F-ak G izatea ez da soilik normala estatistikoki, normatiboki ere normala da. Alegia, emakumeak euren naturagatik dira zaintzaile. Edo, gutxien-gutxienik, aterako genukeen ondorioa da “gauzak horrela direnez” (emakumeak zaintzaile direnez) errealitate horri egokitzen bat bilatu behar zaiola. G benetan bada

Fren tasuna, orduan G ez diren Fak (zaintzaile ez diren emakumeak) F okerrak balira bezala tratatu behar ditugu, zuzendu beharreko Fak balira bezala, edota itxaron egoera normaltzen denean berriz ere euren egoera naturalera itzuliko direla.

Mundu soziala naturala balitz bezala pentsatzeko gogo-joera hau ez da berria: mundu soziala den bezalakoa bada (estatistikoki), on eta zuzen diren ekaien tasunengatik izango da, eta ez genuke haiek aldatzeko saiakerarik egin behar. Horrek guztiak jakina, eragina du bai objektutzean, bai bazterketa sozialean.

a) Objektutzea

‘Objektutze’ [*objectification*] terminoaren erabilerak anitzak dira (Papadaki 2015). Nagusiena teoria moralean ematen da, pertsonak bitarteko soil baino helburu moduan tratatzeko aginduaren testuinguruan. Norbait objektu bezala tratatzen bada, min morala egiten zaio; norbere behar eta desirak asetzeko erabilia denean adibidez, bere izaera morala aitortu gabe edo bere borondatearen aurka. Objektutzearen zentzu hau gure ekintzen beste ezaugarri makur batzuekin ere lotuta dago, hala nola, besteen subjektibotasuna eta eragiletza [*subjectivity and agency*] ukatzea; pentsatzea bestea gailu dela, bitarteko huts, kontsumogai, bortxagarri, norbere ondasun (Nussbaum 1995), gorputzera edo kanpo-itxurara murriztua; eta isilarazia (Langton 2009).

Objektutzea bestela ere erabiltzen da, zentzu zabalago batean, proiektatze prozesuak deskribatzeko. Kasu hauetan, objektu bati berezko tasun batzuk egotzen dizkiogu, propietate horiek soilik hautemanak edo desiratuak izan direnean –proiektatuak- (Langton 2004). Esaterako, Humeren arabera, koloreak, kausalitatearen halabeharrezkotasuna, eta balioa, gizakiok hiruak objektutzen ditugu (objektuan proiektatu). Pertsonen kasuan, objektutzea gertatu ohi da norbere desirak-gidatutako ilusioak besteengan proiektatzen ditugunean [*desire-driven or projective illusion*]. Norbait modu jakin batean desiratzeak, hura berez halakoa dela sinetsaraztera eramán gaitzake ‘edertze fenomenologikoa’ [*phenomenological gilding*], irrika-pentsamendua [*wishful thinking*], eta pseudo-enpatia bezalako prozesuen bitartez. Bestea sexu-objektutat erabiltzen dutenek, askotan ilusio proiektiboen [*projective illusion*] eraginpean ekiten dute. Alegia, bi aldiz objektutzen dute aurrean duten pertsona, zentzu proiektiboan lehenik eta zentzu Kantiarrean ondoren.

Bada beste gaitz bat, ordea, hura ere objektutze forma gisa hartu daitekeena (Haslanger 2012, cap. 1; Langton 2000). *Gure-egindako-uste Esentzialista* eta *Normatiboaren* ondorioa da, oro har, ekaiek naturak dituztela (zerek tasunak dituztela) pentsatzeagatik, haien zat nolabaiteko tratu berezi bat eskatzea. Esate baterako, izan liteke gizakiak, naturaz, arrazionalak izatea, eta arrazionaltasun horrek errespetatua eskatzea. Gorago ikusi dugun moduan, ordea, arazoa dator ekaien naturak ezezagun zaizkigunean eta haien natura begien bistan jartzeko erregulartasun estatistikoak erabiltzen ditugunean. Horrelakoetan aukera dago ekaien ausazko ezaugarriak naturak ‘emanak’ bezala hartzea, zera horien berezko tasunak edo esentziak balira bezala. Norbait horrela objektutzen dugunean, hura eta halakoak klase baten moduan ikusten eta tratatzen ditugu (modu okerrean) eta bizi duten egoeragatik eratorritako propietateak haien naturaren parte direla pentsatzera iristen gara. Hori gertatzen da, hain zuzen, rol sozialak ‘naturalizatzen’ direnean: gizatalde bateko kideek okupatzen dituzten rol bereizgarri horiek klase horren naturaren adierazpen gisa hartzen direla.⁶

⁶ Hori bi modutara gerta liteke. Esate baterako, emakumeek hartutako rol ezaugarritzaileak emakume-tasunaren parte uler litezke. Norbait esentzialki emakume bada, orduan rol bereizgarri horiek bere naturaren edo esentziaren parte bihurtzen dira. Baina baita

Hartu sexu-objektutzea. Sexu-objektutzeen kasu paradigmaticoetan, urliak bere plazer hutsagatik sandia sexurako objektu gisa erabiltzen du. Edonork onartuko du horrek Kantiar printzipioa urratzen duela, bitarteko soil gisa inor ez delako tratatu behar. Baina era berean okerra litzateke sexu-objektutzea gertakari isolatu moduan ulertzea, norbanakoak erlazionatzeko modu gisa edo. Ohikoa, sexu-objektutzea gertaera kulturala izatea da, eta gogoetatu beharreko kasu gordin guztiak horren adierazpenak baino ez dira.⁷ Emakumeen objektutzeak, esaterako, interpretazioa kultural jakin bat darama bere baitan, emakumeak *zertarako* diren. Emakumeak gizonen desirak *asetzeko* dira. (Konkretuki sexu-objektutze kasuetan, gizonen desira sexualak *asetzeko*). Ez dio axolarik kultura partikular horretan gehiengoak ez badu modu esplizituan baieztapen hori onartzen, egoera horretan ere arrazoizkoa delako hura sakoneko ideologia dela postulatzeko, kultura horretan emakumeak sistematikoki gizonak zaintzen jartzen baditu (sexualki eta bestela). Halako objektutzeek marko kultural egituratzaile moduan funtzionatzen dute: emakumeek natura jakin bat dute (gizonak zerbitzatu eta zaindu), eta euren natura horrek egoki-egokiak egiten ditu rol sozial jakin batzuk (emazte, ama, neska-lagun) ederkien betetzeko.

Emakumearen objektutzeak bi akatsak bateratzen ditu, akats proiektibo edo naturalizatzailea (emakumeak gizonen beharrak *asetzeko* dira) eta akats Kantiarra (beraz, bitarteko gisa tratatu genitzake). Aurrerago iradoki moduan, behin azpiratze-sistema ezarri denean, rol sozialak natural gisa ikusten dira, kasik ez duela minik ematen dirudiela, modu objektiboan ere sarri, ebidentziaren orokorpen soil gisa. Adibidez, galde dezakegu: gizonak ala emakumeak, nor dago jaioberriak zaintzeko hobeto hornituta/egokituta? Begiratu ingurura. Emakumeak dira haur jaioberrien zaintzaile nagusiak alde nabarmenarekin (eta gaixoenak, adinekoenak, bestelako gaitasunak dituztenenak). Hori da normala, estatistikoki. Eta emakumeek, lan horren ondorioz, egiazki garatu dituzte haurtxoak zaintzeko hainbat trebetasun, gizonetako gehienek garatu ez dituztenak. Badira noski ama ez diren emakumeak, zaintzaile joerarik gabekoak, inguru lehiakorretan ondo aritzen direnak, eta abar, baina haiek guztiak ez dira ‘normalak’. Eta behin gure munduak (estatistikoki) erakusten duenean haurrak zaintzeko emakumeak hobeto hornituta daudela, berehala hasten dira efektua egiten *Gure-egindakoste Esentzialista* eta *Normatiboa*. Lan munduan, industrian, zientzian arriskua da emakumeak erabat txertatzea. Esaterako, lehiakorrak direla erakusten dutenean ere, euren natura mehatxutzat hartzen jarraitzen da, edozein mementotan hura gauzatu eta lehiatzeko joera ‘ez-natural’ hori zapuztu baitezake. Are gehiago, amek lantokian izan ohi dituzten zailtasunek frogatzen dituzte gure aurreiritziak, emakumeek zer behar duten, haientzat zer den on eta zuzen. Antinaturala litzatekeelako ama langileen bizimodua erraza izatea, emakumeen izaera zaintzailea kontuan hartuta. Horixe da *status quo* arrazoiketa, bere potentzia maximoan. Espero genuena finkatzen laguntzen digu munduak, hain zuzen halakoxea egin dugulako aurretik (Wittig 1993: 11-12).

Klase sozialen “bukle efektua” ondo erakusten du horrek. Hackingek (1995) horrela deskribatzen zuen buklee efektua:⁸

bestela ere, esaterako, amen rol ezaugarritzaileak ama izateko baldintza gisa uler litezke. Inor esentzialki ama izan gabe ere, ama direnak ‘benetak’ ama soilik izan daitezke ama-tasun baldintza horiek betetzen badituzte. Ikus baita ere 3. oin oharra.

⁷ Objektutzea, edo erreifikatzea (gauza-tzea), modu orokorrean hartuta fenomeno sozial, edo are egiturazko, gisa nola ulertzen den ikusteko, baita ere Honneth (2006), 100 orria.

⁸ Baita ere Hacking, “Making Up People”, London Review of Books 2006, <https://www.lrb.co.uk/v28/n16/ian-hacking/making-up-people>

También Hacking, “Making Up People”, London Review of Books 2006, <https://www.lrb.co.uk/v28/n16/ian-hacking/making-up-people>

“New sorting and theorizing induces changes in self-conception and in behaviour of the people classified. Those changes demand revisions of the classification and theories, the causal connections, and the expectations. Kinds are modified, revised classifications are formed, and the classified change again, loop upon loop.” (370)

Ohartu, hala ere, Hackingek marraztutako bukleetan beti dagoela norbait sailkapena bere egiten, bai nortasunean txertatuz bai bere ekintzen asmoetan eraginez. Esaterako, ‘errefuxiatu’ gisa etiketatzen dugunean, hura errefuxiatu gisa jarduten da, errefuxiatu izaera bere nortasunean barneratuz; errefuxiatuak antolatuko balira eta nola ikusiak eta tratatuak diren aldaraziko balute, errefuxiatuei buruzko teoria eguneratu beharko litzateke, aldaketa hori jaso dezan (Hacking 1999, 9-10).

Buklearen mekanismo kausala, ordea, ez da beti bertako subjektuen onarpen bidez gauzatzen, haiek sailkapena onartzetik, edo teorizazioa edo nortasuna edo asmoa onartzetik (Haslanger 2012, kap. 3; cf. Mallon 2015); buklea hamaika norabidetan gerta daitekeelako. Erakunde eta egitura sozialak bilakatzen doazen eran, aukera materialak batera edo bestera mugitzen dira, gizataldeen ekintzen eta harremanen jarraibideak ere aldatuaz. Inoren kontrolpeko, inork kontzeptualizatu gabeko, egitura handiek ‘jendea egin dezakete’, inork propio nahi izan gabeko eran. Esaterako, hezkuntza-, lana- edo etxebizitza-aukeren arteko harremanek, garraio-, osasun-, zaintza- eta judizial-sistemekin batera, erregulartasun sozialak sortu ditzakete, baita desberdintasun larriak ere, nahita bilatu ez direnak edo agerikoak ez zaizkigunak (Tilly 2002: 28). Objektutze-prozesuetan, erregulartasun horiek erditzen dituzten egiturak ez aitortzeak eramaten gaitu hain zuzen erregulartasunok subjektuen-tasunei egoztera (Haslanger 2014a). *Gure-egindako-uste Esentzialistak* eta *Normatiboak* atzematen gaituzte. Horregatik, biak dira posible: Hackingek zioena, alegia, egituretan sozialki kokatutakoei aplikatzen dizkiegun ‘etiketak’ haiek euren nortasunean txertatzea; eta kontrakoa, subjektuek etiketa horiek bere gain ez hartzea ere.

Injustizia epistemikoaren auzian hori guztia nabarmena da (Haslanger 2014b). Duela gutxi, Auzitegi Goreneko epaile Antonin Scalia zenak, *Fisher vs University of Texas* auzian,⁹ diskriminazio positiboaren inguruan honakoa esan zuen:

*“There are those who contend that it does not benefit African Americans to get them into the University of Texas, where they do not do well, as opposed to having them go to a less-advanced school, a slower-track school where they do well.”*¹⁰

Scaliaren hitzak irakurtzean, Afrikar Amerikarren objektutze epistemikoa nabaritzen da: Afrikar Amerikarrak ez dira txukun aritzen Texasko Unibertsitatean (dio); horrek Afrikar Amerikarren ahalmen epistemikoen inguruko zerbait jartzen du agerian (eta ez, noski, jokabide alboratu edo estereotipatuen eragina Texasko Unibertsitatearen jardunean). Ondorioz, Afrikar Amerikarrentzat ‘aproposagoak’ dira eskakizun apalagoak dituzten hezkuntza erakundeak.

Objektutze epistemikoa hainbat formatan ematen da; kasu guztietan, ezagutzaile-estatusa baldintzatzen da norberari omen dagokion rol edo funtzio sozial aproposaren gaineko aurreiritziengatik. Esaterako, emakumeen kasuan, objektutzea historikoki gizonen desiren proiektzioen arabera izan da: emakumeak gizonen beharrak (sexualak, ugalketarenak, etxeak)

⁹ <https://www.scotusblog.com/case-files/cases/fincher-v-university-of-texas-at-austin-2/>
<https://www.scotusblog.com/case-files/cases/fincher-v-university-of-texas-at-austin-2/>

¹⁰ <https://edition.cnn.com/2015/12/09/politics/scalia-black-scientists-scotus/index.html>
<https://edition.cnn.com/2015/12/09/politics/scalia-black-scientists-scotus/index.html>

asetzeko dira. Afrikar Amerikarren kasuan objektutzea lan-beharren araberrako finkatu izan da: Beltzak lan hutsal edo etxeoetarako dira; ‘esklabo-garriak’ dira (Smith 2006: 67). Robert Moses-ek erakutsi du Estatu Batuetan Afrikar Amerikarrek oraindik orain morroi-hezkuntza soila jasotzen dutela.

*“A sharecropper education is an education of lowest expectations. Because people do a certain kind of work, their education is directly tied to this kind of work; they learn no more than is necessary to complete the task”*¹¹

Ekonomia garaikidean, “kotoi-aroko morroi-hezkuntza bizi-bizirik iritsi da informazioaren arora”¹². Hau, noski, injustizia epistemikoa da: ezagutza-ekonomiaren testuinguruan soilik morroi-hezkuntza jasotzen duten Beltzei ukatu egiten zaie gizarteko kide oso izateko aukera, horretarako beharrezkoak diren gaitasun epistemiko eta konfiantzaz gabetu direlako. Horrek, era berean, zaugarritasun sistematiko bidegabean uzten ditu.

Hezkuntza sistemak bukle efektuak sortzen ditu, baita ezaugarrituek nortasun hori onartzen ez dutenean ere. Adibidez, gorputz Beltz estigmatizatuen esanahiek mesfidantza sortzen dute, eta horrela nerabe Beltzak ikastetxeetatik urruntzen dira; era berean, hezkuntzarik ezak eta arrakasta profesionalerako aukera faltak, berrindartu egiten ditu arrazaren araberrako estigmak (Haslanger 2014b). Eta bukle horiek ez dute zerikusirik Beltzak euren rola onartzearekin, lan hutsaletarako direla sinestearekin, edo eskolarekin ez-identifikatzerekin. Gutxietsi eta beheratu egiten dituen eskola sistematik aldentzen dira. Ez genuke inoiz onartu behar, jendeak eduki ezin duena ez duenik eduki nahi.

“As was true of the southern civil rights movement, where sharecroppers, maids, day workers, and others who were expected to be silent found their voice, meaningful school reform will require the voices of students and communities demanding the quality education that too many assume they can’t handle and don’t want.” (Moses eta Cobb 2001: 12)

Objektutzeak, hortaz, aurpegi asko ditu, elkar-elikatzen direnak. Gizartea egituratzeko hainbat portaera eta hazpegi erregularren jatorri soziala ikusezin egiten da. Posizio sozial jakin batzuk okupatzen dituztenek portaeran (eta bestelako hazpegietan) hainbat erregularitasun agertzen dituzte, posizio sozialari dagozkienak, eta hori da hain zuzen ikusten ez dena, erregularitasun horien jatorri soziala; alderantziz, erregularitasun horien azalpen kulturala posizio sozial horiek okupatzen dituzten naturatik etortzen omen da. Horri dei diezaiokegu ‘naturalizazioa’ edo, orokorrago nahi bada, objektutze ideologikoa. Horrek, aldi berean, fantasia proiektatua finkatzen laguntzen du, zeinaren arabera bizi dituzten egiturak aproposak diren haieran hala-posizionatuentzat; egitura horiek egokiak dira natura horiek dituztenentzat. Hori objektutze proiektatua da. Eta, azkenik, fantasiak esaten badu mundua (eta bertan gure bazkide, lankide eta abar gisa sozialki posizionatuta daudenen naturak) gure desirak asetzeko dela, orduan besteak gure irrikak asetzeko bitarteko gisa tratatzen ditugu, haien eragiletza eta autonomia [*subjectivity and autonomy*] ezabatuta, pentsatuaz hori dela aproposa. Horri

¹¹ <http://www.ascd.org/publications/educational-leadership/oct01/vol59/num02/Algebra-and-Activism@-Removing-the-Shackles-of-Low-Expectations%E2%80%94A-Conversation-with-Robert-P.-Moses.aspx>
<http://www.ascd.org/publications/educational-leadership/oct01/vol59/num02/Algebra-and-Activism@-Removing-the-Shackles-of-Low-Expectations%E2%80%94A-Conversation-with-Robert-P.-Moses.aspx>

¹² <http://www.qecr.org/press/17-robert-p-moses-we-tolerate-a-sharecroppers-education>

objektutze Kantiarra deitzen diogu. Horietako bakoitzak injustizia epistemiko esanguratsuak sortzen ditu.

- 1) *Objektutze ideologikoak* gure egitura sozial (eta epistemikoen) jatorri sozial eta kontingentea ezabatzen du, partekatzen ditugun baliabide hermeneutikoen *hutsuneak* (eta hutsune horiek *kausak*) identifikatzeko gaitasuna erasanaz.
- 2) Objektutze proiektatuak zera bultzatzen du, jendea dagokion tokian dagoenaren ideia, eta status quo epistemikoa zuzena edo justua edo halabeharrezkoa dela.
- 3) *Objektutze Kantiarrak* azpian posizionatutakoak benetako agentzia epistemikoa osatzen duten eragiletzaz eta autonomiaz gabetzen ditu [*subjectivity and autonomy*].

(ikus *Fricker [2007: 44]* eta *Pohlhaus, Jr. [2014]* ‘moztutako subjektibitateari buruz’ [*truncated subjectivity*])

Norbait gaizki tratatu, hori dela aproposa esan, eta inguruak tratu hori babesten duenean, egitura instituzional eta ideologikoetatik, ez da harrizkoa norbanakoek tratu hori onartzea eta euren portaera egokitzea: bukleak bukleen gainean.

b. Bazterketa

Gakoa, inor baztertze, *Gure-egindako-uste Esentzialista* zein *Normatibotik* ateratzen ditugun inferentziak dira. Pertsona Zuriak nagusi diren inguruetan, esaterako, pertsona Beltza ez da normala. Aparteko pertsonak normalak ez badira, orduan eurak, edo inguruabarrak, ez dira naturalak, zuzendu beharrekoak baizik. Ezinezkoa da inoren arraza-leinua zuzentzea, jakina, baina egoerak esku-hartzea eskatzen du. Zuzenketa ahalegina bideratu daiteke orduan pertsona horien portaerara edo jarreretara. Edo agian, inoren arraza aldatzerik ez dagoenez, ondorioa da Beltzak berez direla akats-tuak eta egokia dela haiek baztertzea. Orain hartu ‘pertsona Beltza’ argudiotik eta ordeztu jarri edozein gizatalde ez-dominanteren deskribatzailea. Munduak ez ditu erregularitasun perfektuak ematen naturala eta zuzena denari buruzko gure usteak berrindartzeko, baina horrek ere ez dio arazorik sortzen *Gure-egindako-uste Normatiboa* jasotzen duen ideologiari. Alderantziz, munduko inperfekzioek aukera eskaintzen diote natura bere zidorrera bideratzeko.

Elbarrien kasuan, *Gure-egindako-uste Normatiboak* bereziki arrazoizkoa egiten du esku-hartzea. Desgaitasunaren definizioan bertan dago, itxura guztiz, desgaiak ez izatea ‘normalak’ (zentu normatiboan). Akastunak dira eta, beraz, tratatu egin behar dira. Ez hori bakarrik, akastuna akastua bihurtzen da. Norbaitek urritasun lokalen bat duenean, osotasunari proiektatzen zaio akatsa, eta pertsona akats-tua bihurtzen da: aurreko batean aireportuan ginen senarra eta biok, senarra gurgil-aulkian eta ni haren ondoan, aire-konpainiaiko langileak niri galdetzen didanean: “Nola izena du zure senarrak?”, gurgil-aulkiko morrosko buru-erneak halako galdera sinple bati ezingo balio erantzun bezala. Bukle barruan biraka, berriro: elbarrien aurkako aurreiritziek, *Gure-egindako-uste Esentzialistaren* eta *Normatiboaren* laguntzaz, ‘naturaz’ alfer, gauzaez, marrazten ditu, horrek era berean sinesgarritasuna eta errespetu epistemikoa ezabatzen dizkie, eta horrek era berean engaiamendu esanguratsuak izateko beharrezkoak diren baliabide eta aukerak murriztu, egoera sortuz non jatorrizko aurreiritziak finkatzen eta errotzen jarraitzen duten. Arazo hori testimoniala eta hermeneutikoa da, biak. Elbarriak ez-ikusiak eta izenik gabeak izateaz gain, ohikoena zera da, haien eri edo urritasunen bizipenak ez direla interpretatzen haientzako esanguratsuak diren eran, profesional medikuen betaurrekoetatik interpretatzen direlako. (ikus ere Carel eta Kidd 2014).

Ez-gaituak edo ez-normalak direla onartzeak dakartzan inplikazioen aurrean, hainbat teorizatzaile eta aktibistak elbarritasunaren eredu sozial bat planteatu du. Eredu sozial horrek bereizi egiten ditu, batetik, urritasuna [*impairment*] eta, bestetik, desgaitasuna [*disability*]. *Urritasuna* da elbarrien ‘akats’ edo ‘mugapen’ fisikoa. *Desgaitasuna* da, elbarriek han eta hemen aurkitzen dituzten desabantaila bidegabeak, gizarteak onartzen edo eragiten dituenak. Adibidez, gure eremu sozialean, miopia urritasuna izan arren ez da desgaitasun bat, gutako gehienok betaurreko edo lentillak eskura ditugulako. Baina miopia desgaitasuna da txiroentzat, edo asegurerik ez dutenentzat, baliabide ekonomiko faltagatik miopia zuzendu gabe doanez gizartean osoki aritzeko gaitasuna eragozten dielako. (*Ikus* ere Cooper 2007).

Eredu sozialaren abantaila nabaria da, izan ere aldatu beharreko egoera elbarriaren gorputzean kokatu beharrean, testuinguru sozialera eramaten du. Hala ere, badirudi eredu sozialak oraindik ere onartzen jarraitzen duela, batetik, gorputz elbarrituak nolabait urriak direla eta, bestetik, horrek izatez akastun egiten dituela. Hori hala denik ordea, ez dago hain argi. Shelley Tremainek (2001) esaterako, kontrakoa azpimarratu du. Eredu sozialak ulertarazten duenaren aurka, Tremainen aburuz, urritasuna ez da egoera natural puro bat, urritasun gisa hartzen dena testuinguru sozialaren araberakoa baita. Zehatzago, urritasuna kudeatzen duten prozesu sozial/administratibo/sanitarioek gorputza modu jakin batean ‘irakurtzen’ dute, tratagarri dena eta ez dena bereiziz. ‘Urritasun’ ideiaaren atzean, konkretuki, Tremainek ‘diagnosi-arrazoiketa’ ikusten du. Diagnosi-arrazoiketak konpondu edo kudeatu beharra eskatzen ei duten hazpegietan jartzen du arreta. Baina, noren argipean? Zein helbururekin? Elizabeth Barnesek (2009, 2014) irrimo argudiatu du, gizakiongan osasuna eta ongizatea ulertzeko erak bihurritu egin behar direla, desgaitasuna (edo urritasuna) berez txar balira bezala ez hartzeko. Berak dioenez, eta honetan bat egiten du elbarrien eskubideen aldeko ekintzaileekin, “*elbarri izatea ez da zuretzako txarra den zerbait. Elbarritasuna giza aniztasunaren eremu naturala da –errukitu eta azkenik ‘sendatu’ beharrekoa baino, balioan jarri eta ohoratu beharreko zerbait*” (2014: 88; baita ere Barnes 2016). Bai diagnosi-arrazoiketak, bai gaizki ulertutako ongizate batek, biek ala biek injustizia hermeneutiko itzelak ezartzen dituzte.

Elbarritasunaren alorrean, *Gure-egindako-uste Esentzialistak* eta *Normatiboak* modu konplexuan funtzionatzen dute. Demagun laguntzarik gabe oinez ibiltzea normaltzat dugula, ez soilik estatistikoki normala, baizik eta baita normatiboki ere. Kasu horretan, ibiltzea naturala eta aproposa iruditzen zaigunez, laguntzarik gabe ibili ezin direnak ez dira soilik ‘desberdinak’, akastuak baizik. Gauza bera gertatzen da desgaitasun kognitiboak dituztenekin: informazioa azkar prozesatu ezin dutenak edo harreman sozial konplexuetan gorabeherak dituztenak, akastuak dira, baita ezaugarri horiek abantailak ematen dituen kasuetan ere (Grandin 2006). *Gure-egindako-uste Normatiboak* ‘akats’ moduan ebaluatzen du ezaugarri hori, eta *Gure-egindako-uste Esentzialistak* akatsa norbanako horien gorputzean kokatzen du.

Giza naturatzat ulertzen dugunaren arabera hartzen da desgaitasuna akats gisa. Horregatik, komeni da ohartzea giza egoerak, egoera naturaltzat hartuak, objektutze-garriak direla. Har dezagun adibidez, esklerosi anizkoitza (EA). Estatistikoki normala da ibiltzeko eta oreka bilatzeko zailtasunak izatea. Zailtasun horiek EAren ondorio normal gisa ulertzen baditugu, onduan *Gure-egindako-uste Esentzialistak* normaltasun hori bere naturaren zeinu gisa ulertzen du –baina zein natura? Irudiko luke, EAren natura jendeari ibiltzeko eta oreka bilatzeko zailtasunak jartzea dela. Baina horrek bi ondorio ekarriko lituzke: 1) EA diagnostikatu izan arren, ibiltzeko eta orekari eusteko zailtasunik ez dutenek, *benetan* ez dute EAik (faltsua dena). Edo, 2) EA dutenei ibiltzeko zailtasunak izan eta oreka

galtzea dagokie, eta ez genuke beste ezer espero behar. Horrek esan nahi du, zuk EA baduzu, edo batetik, EAren natura gorpuzten duzu eta ezingo zenuke ekidin esku-hartze (erasokorrik?) gabe, edo bestela, zuk *benetan* ez duzu EAik.

Inferentzia patroia hauek gainerako kategoria sozialetarako ere balio dute. Gogoratu gorago aipatu duguna, arraza (edo sexua) akats gisa uler daitekeela: Beltz izatea ez-normala da eta, beraz, gizaki izateko modu okerra. Jo dezagun orain Beltz izatea giza egoera moduan ulertzen dugula, desgaitasun moduko zerbait. Beltzei buruzko estatistikak begiratzen baditugu, Beltzen naturari buruzko aurreiritziak baieztatzen dituztela lirudike. Beltzak sistematikoki azpiratzen dituen testuinguru sozialean, Beltzen naturak etsigarria dirudi. Hartu, esaterako, Beltza izateak kriminal izateko joera erakusten duela dioen ondorioa. Orduan, aurreko paragrafoan marraztutako inferentzia patroia aplikatuta, bi ondorio atera genitzake hemen ere: 1) Joera kriminalik ez duten Beltzak, ez dira *benetako* Beltzak. Eta, 2) behar bezalako Beltzek joera kriminalak dituzte, eta ez genuke beste ezer espero behar, ez gutxienez esku-hartze (erasokorrik?) gabe. Horrek, era berean, ondorio epistemikoak dauzka, esaterako hezkuntzan: 1) Eskolan ondo aritzen diren Beltzak ez dira *benetako* Beltzak. Eta, 2) behar bezalako Beltzak porrot egiten duten eskolan, eta ez genuke beste ezer espero behar.

Horrela, *Gure-egindako-uste Esentzialista* eta *Normatiboaren* gainean eusten den objektutze ideologikoak bi bukile mota azaltzen laguntzen digu: batetik, guk sortutakoa errotzen duten bukileak eta, bestetik, mespretxatu duguna baztertzea eta modu legitimoan ‘aldatzea’ zurrizten duten bukileak. Objektutzeak ez duelako funtzionatzen soilik gure buruetan; zer existitzen den ezartzen du, zein erregularitasun bilatu behar ditugun, ekai motak zeintzuk diren eta baita munduak agerian zein natura jartzen dituen ere. Mundu materialak sortutako joerak finkatzen ditu. Arrazaren arabera sailkapenak eta estigmatizatzeak, arraza-segregazioa indartzen du, horrek arraza-nortasuna errotzen du eta horrek, era berean, arrazaren arabera sailkapenak eta estigmatizatzeak finkatzen ditu. Onak edo kalterakoak, egitura sozialak osatzen dute bizi dugun errealitatea; haiek ezartzen dute mundua nola garatzen den, zer baden eta zer ez den.

4. Objektibotasun epistemikoa, injustizia epistemikoa, eta kritika soziala

Dagoeneko iradokita utzi dut, objektutze prozesuetan eragin zuzena dutela ‘gertakariei lotzeko’, (epistemikoki) objektiboak izateko, gure ahaleginak. Objektibotasun epistemikoaren eredu dominantearen arabera, gure ikerketan objektiboak gara baldin eta soilik baldin gure usteak justifika baditzaiegu edozein ikertzaile arrazionalari eskuragarri zaion eran. Gainera, norbaitek uste badu, ezin dugula balioen gaineko ezagutza objektiborik izan, orduan objektiboak izateko gure ikerketak balioetatik-askea izan behar duela pentsatuko du.

Gure-egindako-uste Normatiboak onargarria dirudi, baita asmo objektiboak duten ikerketetan ere. Auzitan dagoen ‘ontasun’ zentzua soilik bada zera mota jakin baten natura kontuan hartuta zera horrentzat ‘egokia edo aproposa’ (*fitting*) dena, ordua balioaren ikuspegi naturalizatua daukagula pentsa dezakegu, azterketa arrazionalaren bidez ezagutu-garria dena. Biologoek esan diezagukete, adibidez, ugaztun eta martsupialentzat zer den normatiboki normala: Katu edo kanguru batek itxuragabetasunen bat badu, identika-garria izateaz gain, itxuragabetasun horren kausak ere identifikatzen saia gaitzake. Hortaz, zergatik ez pentsatu gizakiak enpirikoki ikertzen baditugu, gizakiontzat naturala dena, eta beraz egokia eta beraz ona dena, ezarri genezakeela?

Gizakiarentzat ona dena jakiteko, besteak beste, ikerketa enpirikoa ezinbestekoa dela joerakoa naiz, eta baita giza naturen inguruko hainbat baieztapenena ere. Baina, modu berean argi esan behar da erregulartasun estatistikoetatik naturak inferitzen dituzten mugimendu ‘enpiristak’ ez dira baliozkoak. Feministek, baina ez feministek bakarrik, azken hamarkada luzeetan babestu duten moduan, aurre egin beharko genioke ikerketa objektiboak ‘balio-gabekoak’ diren baieztapenari. (Esaterako, Anderson 1995; Intemann 2010; Longino 1990; Mills 1988). Objektibotasun epistemikoaren inguruko eztabaida zabalegia da kapitulu honetan jasotzeko, urrunegi eramango gintuzke. Auzia objektutzean jarrita, ordea, egitekoa argiagoa da, erregulartasun bat hartu eta erabaki ea eten daitekeen edo eten beharko litzatekeen (zeina ez den haren naturaltasunaren inguruko galdera soila!), edota mantendu eta egokitu beharko genukeen.

Zeregin horretan aurrera egin ahal izateko, ez genuke joan behar *Gure-egindako-uste Esentzialista* eta *Normatiboan* txertatuta dauden bi maldatik behera. Lehena indibidualismoa da, zeinak patroï sozialen iturburua norbanakoengan kokatzen duen, nolabait ahaztuta edo ukatuaz patroï horien azalpen estrukturala (Haslanger 2015). Bigarrena, egonkortasunaren eta *status quo* arrazoiketaren aldeko joera da. Batez ere, pentsatzea, hori dela gauzak (benetan) izateko modua, eta orduan ona dela (edo aski ona). Kritika sozialak prest egon beharko luke norbanakoak ekiten duten baldintza indibidual eta ‘normalei’ aurre egiteko, ezagutzen dugun mundu soziala horrelakoa izatea egin duten objektutzeak desegiten arrakastarik eduki nahi badu behintzat. Justizia epistemikoa ez da soilik besteen testigantzak entzutea edo gure baliabide hermeneutikoak zabaltzea (biak garrantzitsuak diren arren), baita ere bada estrukturak birrintzen hastea, zeinen bitartez objektutzen ditugun subjektu epistemikoak, kapitalismo Zuri gailenkoi kapazitista [*ableist*] patriarkalaren helburuen mesedetan.

Aipatutako bibliografia

- Anderson, Elizabeth. 1995. “Knowledge, Human Interests, and Objectivity in Feminist Epistemology.” *Philosophical Topics* 23(2): 27-58.
- Barnes, Elizabeth. 2009. “Disability and Adaptive Preference.” *Philosophical Perspectives* 23(1): 1-23.
- _____. 2014. “Valuing Disability, Causing Disability.” *Ethics* 125(1): 88-113.
- _____. 2016. *The Minority Body*. Oxford: Oxford University Press.
- Boyd, Richard. 1999. “Homeostasis, Species and Higher Taxa.” Robert A. Wilson (ed.), *Species: New Interdisciplinary Essays*. Cambridge, MA: MIT Press, pp. 141-86.
- Carel, Havi and Ian James Kidd. “Epistemic Injustice in Healthcare: A Philosophical Analysis.” *Medicine, Healthcare and Philosophy* 17(4): 529-240.
- Cooper, Rachel. 2007. “Can It Be a Good Thing to Be Deaf?” *Journal of Medicine and Philosophy* 32(6): 563-583.
- Daston, Lorraine & Peter Gallison. 2007. *Objectivity*. Cambridge, MA: MIT Press.
- Fine, Kit. 1994. “Essence and Modality.” *Philosophical Perspectives* 8 (ed. J. Tomberlin): 1-16.
- _____. 1995. “Senses of Essence.” Walter Sinnott-Armstrong, Diana Raffman, Nicholas Asher (eds.), *Modality, Morality, and Belief: Essays in Honor of Ruth Barcan Marcus*, pp. 53-73.
- Fricke, Miranda. 2007. *Epistemic Injustice: Power and the Ethics of Knowing*. Oxford: Oxford University Press.

- Grandin, Temple. 2006. *Animals in Translation: Using the Mysteries of Autism to Decode Animal Behavior*. New York: Harcourt.
- Hacking, Ian. 1986. "Making up people." Thomas C Heller, Morton Sosna, and David E. Wellbery (eds.), *Reconstructing Individualism: Autonomy, Individuality, and the Self in Western Thought*. Stanford: Stanford University Press, pp. 222-236.
- _____. 1995. "The Looping Effects of Human Kinds." Dan Sperber, David Premack, and Ann James Premack (eds.), *Causal Cognition: A Multi-disciplinary Debate*, pp. 351-383.
- _____. 1999. *The Social Construction of What?* Cambridge, MA: Harvard University Press.
- Haslanger, Sally. 2012. *Resisting Reality: Social Construction and Social Critique*. Oxford: Oxford University Press.
- _____. 2014a. "The Normal, the Natural and the Good: Generics and Ideology." *Politica & Società* 3: 365-392.
- _____. 2014b. "Studying While Black: Trust, Opportunity and Disrespect." *DuBois Review* 11(1): 109-136.
- _____. 2015. "What is a (Social) Structural Explanation?" *Philosophical Studies* 173(1): 113- 30.
- Honneth, Axel. 2006. *Reification: A Recognition-Theoretical View*. The Tanner Lectures on Human Values, March 14-16, University of California, Berkeley.
http://tannerlectures.utah.edu/_documents/a-to-z/h/Honneth_2006.pdf.
- Intemann, Kristen. 2010, "25 Years of Feminist Empiricism and Standpoint Theory: Where Are We Now?," *Hypatia*, 25(4): 778–796.
- Langton, Rae. 2000. "Feminism in Epistemology: Exclusion and Objectification." M. Fricker and J. Hornsby (eds.), *The Cambridge Companion to Feminism in Philosophy*, Cambridge: Cambridge University Press, pp. 127–145.
- _____. 2004, "Projection and Objectification", in *The Future for Philosophy*, Brian Leiter (ed.), Oxford: Clarendon Press, 285–303.
- _____. 2009. "Autonomy-Denial in Objectification." *Sexual Solipsism: Philosophical Essays on Pornography and Objectification*. New York: Oxford University Press, pp. 223-240.
- Longino, Helen. 1990. *Science as Social Knowledge*. Princeton: Princeton University Press.
- MacKinnon, Catharine. 1989. *Towards a Feminist Theory of the State*. Cambridge, MA: Harvard University Press.
- Mallon, Ron. 2003. "Social Roles, Social Construction, and Stability." F. Schmitt (ed.), *Socializing Metaphysics*. Lanham, MD: Rowman and Littlefield, pp. 327–53.
- _____. 2007. "Human Categories Beyond Non-Essentialism." *Journal of Political Philosophy* 15(2): 146-168.
- _____. 2015. "Performance, Self-Explanation, and Agency." *Philosophical Studies* 172(10): 2777-2798.
- Mills, Charles. 1988. "Alternative Epistemologies." *Social Theory and Practice* 14(3): 237-263. Special Issue: Marxism-Feminism: Powers of Theory/Theories of Power.

- Moses, Robert P. 2010. "Constitutional Property and Constitutional People." Theresa Perry, Robert P. Moses, Joan T. Wynne, Ernesto Cortés, Jr., and Lisa Delpit (eds.), *Quality Education as a Constitutional Right*. Boston: Beacon Press, pp. 70-92.
- Moses, Robert P. and Charles Cobb Jr. 2001. "Organizing Algebra: The Need to Voice a Demand." *Social Policy* 31.4 (2001): 4-12.
- Nussbaum, Martha. 1995. "Objectification." *Philosophy and Public Affairs* 24(4): 249-291.
- Papadaki, Evangelia (Lina). 2015. "Feminist Perspectives on Objectification", *The Stanford Encyclopedia of Philosophy* (Winter Edition), Edward N. Zalta (ed.),
 URL = <<http://plato.stanford.edu/archives/win2015/entries/feminism-objectification/>>.
- Pohlhaus, Gaile. 2014. "Discerning the Primary Epistemic Harm in Cases of Testimonial Injustice." *Social Epistemology* 28(2): 99–114.
- Rousseau, Jean Jacques. 1979/1762. *Emile: Or On Education*. Allan Bloom (ed. & trans.). New York: Basic Books.
- Smith, Andrea. 2006. "Heteropatriarchy and the Three Pillars of White Supremacy." Incite! Women of Color Against Violence, (ed.) *The Color of Violence: The Incite! Anthology*. Boston: South End Press, pp. 66-73.
- Tilly, Charles. 2002. "The Trouble with Stories." *Stories, Identities, and Political Change*. Lanham, MD: Rowman and Littlefield.
- Tremain, Shelley. 2001. "On the Government of Disability." *Social theory and practice*, 27(4): 617-636.
- Wittig, Monique. 1993/1981. "One is Not Born a Woman." *The Straight Mind*. New York: Basic Books.
- Wollstonecraft, Mary. 1999/1792. *A Vindication of the Rights of Men, A Vindication of the Rights of Woman, An Historical and Moral View of the French Revolution*. Oxford World's Classics. Oxford: Oxford University Press.